

Jakinarazten da honako dekretu hau eman dela:

2026/312 DEKRETUA
2026/02/25

“Gorka Artola Alberdik, Bergarako Udaleko Alkateak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 atalean xedatutakoaren arabera, gaia aztertu eta ebazpena eman dut.

IKUSIRIK

Bergarako udalak Ingurumen teknikari lanpostua betetzeko deialdia (Esp.zk.a.: 2024LAAU0021) ireki zuen. Deialdi horretan parte hartzen ari ziren izangaiei jakinarazi zitzairen atal praktikoa 2025eko urriaren 14an, goizeko 9:00etan egingo zela.

Azterketa praktikoa bi zati zituen. Lehenengo zatian bi ariketa zeuden:

1. Ariketa: planteamendu urbanistikoaren ingurukoa. Galdera honek, aldi berean, bi atal zituen:
A atala: kontsulta urbanistikoari erantzuna.
B atala: baimenik gabeko betelanaren ingurukoa.
2. ariketa: lur mugimenduei buruzkoa.

Bigarren zatian 4 galdera teoriko-praktiko zeuden.

Lehenengo eta bigarren zatiaren artean ordu erdi inguruko deskantsu bat egon zen.

Azterketa aurretik tribunala osatu zen Presidente, Idazkari eta bokal bat egonda. Bokala, azterketa hasi bezain laster, azterketa gunetik irten zen, bertan egonik bai Presidentea eta Idazkaria. 9:00etan hasi zen azterketa. 9:20 inguruan, Presidentea konturatu zen lehenengo zatiko 1. ariketako “A” galdera egiteko planteamendu urbanistikoko orriak gutunazalean sartzea falta zela. Beharrezkoa zela ikusita, Presidenteak eta Idazkariak erabaki zuten azterketarekin jarraitzea eta lehenengo zatiaren iraupenari ordu bat gehitzea. Presidentea dokumentazioaren bila joan eta ordu bete baino gutxiago tardatu zuen berriro bertaratu eta orriak banatzen.

Erreklamazioa gora jotzeko errekurso gisatzat jo behar da, alegazioa ikusita, aurkatu den egintza administrazioa tramiteko egintza kualifikatu bat dela ulertuta. Hala, eta zentzu horretan har daitekeen erabakia hatagai guztietan izan dezakeen eragina kontuan izanda, Alkate dekretuz erabaki zen erreklamazioa denei helaraztea eta epea ematea horren inguruan eta erabakiaren inguruan (azterketarekin jarraitu eta epea luzatzearena, hain zuzen ere) alegazioak aurkezteko (entzunaldi fasea).

Epe hori amaituta, alegazioak modu honetan laburbildu daitezke:

- A) Erabakia hartzeko quorum falta.
- B) Gertakariak kontzentrazioan eta urduritasunean izan zuen eragin negatiboa.

C) Bigarren galderatik hasi ziren azterketariek besteek baino 20 minutu gehiagoko denbora izan zutela azterketa egiteko eta horrek hautagaien arteko berdintasun-eza dakarrela.

D) Orri berriak (planteamenduaren zatikoak) gutun azal itxiak eman ez genituela ikusita, gardentasun falta.

Eskaerak askotarikoak dira (parentesi artean eskatzen dutenen kopurua):

- Erabakia legekontrakotzat jotzea eta azterketa praktikoko lehenengo zatiko lehenengo ariketa (A galdera) ezabatzea eta besteak aintzat hartzea. Azterketa ez errepikatzea eta puntuazioa gainontzeko galderetan banatzea (birbarematzea). (2)
- Erabakia legekontrakotzat jotzea eta baliogabetzea azterketa praktikoko lehenengo zatiko lehenengo ariketa (A eta B galderak barne). Azterketa ez errepikatzea eta puntuazioa gainontzeko galderetan banatzea (birbarematzea). (1)
- Erabakia ontzat ematea eta prozesuarekin aurrera jarraitzea (1)
- Erabakia legekontrakotzat jotzea eta azterketa praktikoko lehen zatiko bi ariketak errepikatzea. (1)

Egitate horiei, honako **OINARRI JURIDIKOAK** zaizkie aplikagarri:

LEHENENGOA: Quorumari buruz.

Hautaketa-prozesuetan, epaimahaiaren jarduna administrazio-organo kolegiatu baten jardunaren parekoa da; ondorioz, aplikagarriak dira, hautatze prozesua arautu duten oinarrietan jasotakoaz haratago, administrazio-organo kolegiatuei buruzko arauak, bereziki Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikulutik aurrerakoak. Araudi horren arabera, organo kolegiatu batek erabakiak hartu ahal izateko beharrezkoa da gutxieneko osaketa edo quorum bat egotea, hau da, presidentea eta idazkaria edo haien ordezkioak, eta kideen erdia gutxienez.

Azterketaren unean egiaztatzen da epaimahaiko bokala azterketa hasi bezain laster bertatik irten zela, eta intzidentzia gertatu zenean bertan presidentea eta idazkaria bakarrik zeudela. Era berean, egiaztatzen da ez dela existitzen ez oinarrietan ez epaimahaiaren aktetan eskuordetze edo ordezkaritza formalik zaintzaileen alde (Presidentea eta Idazkaria), beraz ezin direla epaimahaiaren kide gisa hartu erabakiak hartzeko ondorioetarako.

Azterketan gertatutako intzidentziei buruzko erabakiak —bereziki funtsezko izaera dutenak, probaren garapena eta iraupena aldatzen dituztenak adibidez— epaimahaiaren funtsezko eskumenen barruan daudela, eta ezin direla quorum legalik gabe hartu.

Ondorioz, egitate objektiboen arabera, eta Epaimahaiak berak egindako proposamenari jarraiki, erabakia hartzeko unean organo kolegiatuaren osaketa ez zen legezkoa izan, organo eskudunak behar bezala osatu gabe jardun baitzuen.

BIGARRENA: Kontzentrazioan eta urdurasunean izan zuen eraginari buruz.

Bi alegaziotan jasotzen denez, gertatutako intzidentziak hautagaien kontzentrazioan eta egoera emozionalean eragin negatiboa izan zuen.

Horren harira, kontuan hartu behar da oposizio-proben testuinguruan azterketa-egoerek berez sortzen dituztela tentsioa eta urdurasuna eta azterketetan maiz gerta daitezkeela tankera honetako intzidentziak. Kontzentrazioan eragina izan dezaketen gertakariak edo intzidentzia horiek askotarikoak izan daizteke. Zentzu horretan, gertakariak ezin dira automatikoki proba baliogabetzeko arrazoi bihurtu, baldin eta Administrazioak egoera konpontzeko neurri arrazoizkoak hartzen baditu eta kalte objektibo, esanguratsu eta egiaztagarri bat izan dela frogatzen ez bada.

Kasu honetan, epaimahaiak berehala jardun zuen —intzidentziaz ohartu bezain pronto—: falta zen dokumentazioa bilatu zen eta lehenengo zatiaren iraupena luzatu zen, hautagaiek ariketa behar bezala egiteko aukera izan zezaten. Hasieratik adierazi zuen epaimahaiak proba luzatuko zela kudeaketak irauten zuen denbora berean. Probaren baldintzak berrezartzeko hartutako neurri zuzentzaileak modu objektiboan, azkarrean eta naturalean hartu ziren.

Horrenbestez, gertakariak sor zezakeen eragina ulertzekoa bada ere, ez da esanguratsutzat jotzen eta ez da egiaztatutzat jotzen ondorio horrek modu objektibo eta neurgarrian baldintzatu zuenik azterketaren emaitza edo hautagaien arteko lehia-baldintza, eta eraginetekotan, lehenengo zatiko lehen zatiko lehenen ariketako bi galderetan eragin zuen.

HIRUGARRENA: Denbora-abantaila eta berdintasun-printzipioari buruz.

Alegazioetako batek adierazten du hautagai batzuek bigarren galderatik hasi izanak gainerakoek baino denbora gehiago izatea ekarri zuela, eta horrek berdintasun-printzipioa urratu zuela.

Hala ere, azterketaren dinamika praktikoari erreparatuz, kontuan hartu behar da ariketa bat hasi aurretik beharrezkoa dela galderak irakurri, planteamendua ulertu eta erantzunaren egitura prestatzea. Beraz, denbora-alde hori ez da automatikoki benetako abantaila bihurtzen, batez ere lehen uneetako ziurgabetasun testuinguruan.

Gainera, epaimahaiak hartutako neurriak —probaren iraupena luzatzea— helburu zuen sortutako desoreka posiblea zuzentzea. Neurriak objektibotasunez eta orokortasunez hartu ziren, hautagai guztiei modu berean aplikatuz, eta ez zen inori tratamendu berezirik eman.

Kasu honetan, ez da egiaztatzen desabantaila erreal eta esanguratsurik egon zenik, eta hartu ziren neurriak objektibotasunez hartzeaz gain, proportzionatuak eta arrazoizkoak izan ziren. Ondorioz, ulertzen da hautaketa-prozesuan berdintasun-printzipioa errespetatua izan zela.

LAUGARRENA. Gardentasun faltari buruz (orri solteak, gutunazal itxi gabe)

Azkenik, hautagai batek alegatu du dokumentazio berria gutunazal itxirik gabe banatu zenez gardentasuna eta objektibotasuna urratu zirela.

Administrazio-jardunean eta hautatze prozesuetan gardentasun-printzipioa bermatzeko, prozesuaren inpartzialtasuna eta manipulazio arriskurik eza zaindu behar dira. Hala ere, gardentasun-faltaren alegazioa onartzeko ez da nahikoa susmo hutsa; beharrezkoa da frogatzea jarduerak benetan eragin zuela prozesuaren objektibotasunean edo hautagaien arteko berdintasunean.

Espedientean jasotako datuetatik ez da ondorioztatzen orri horiek entregatzeko moduak edukia aldatzeko edo hautagai batzuei abantaila emateko aukerarik sortu zuenik. Dokumentazioa denei batera eta baldintza berdinetan banatu zitzairen, eta ez dago manipulatu izan zenik edo edukia aldezturik ezagutzeko aukerarik egon zenik adierazten duen ez zantzu ez frogarik. Hala, oinarririk gabeko alegazio ukatzea dagokio.

BOSGARRENA: Deuseztagarritasuna aitortzearen ondorioei buruz.

Alegazioak eta horiei buruzko argi utzita, azterketaren lehenengo zatiko lehenengo ariketari (A eta B galderak) eragiten dion erabakia quorum legalik gabe hartu zen. Quorum faltak erabakiaren baliozkotasunean eragiten du, eta, ondorioz, egintza hori deuseztagarritzat jotzea dagokio (39/2015 Legeko 48. artikulua).

Administrazio-egintza baten deusezetasunaren deklarazioak ez du berekin ekartzen automatikoki prozedura osoaren baliogabetzea; alegia, egintza deuseztagarri aitortzearen ondorioak hedatuko dira soilik akatsak zuzenean ukitzen dituen egintzetara eta haiekin lotura zuzena dutenetara. Hala, egintza deuseztatzea akatsak zuzenean ukitzen duen egintzara mugatu behar da, administrazio egintzen kontserbazio printzipioa aplikatuz (39/2015 Legearen 51.artikulua).

Planteamendu komun baten baitan egituratuta daude lehenengo zatiko lehenengo ariketako “A” eta “B” galderak, eta horien erantzuna eta ebaluazioaren homogeneotasuna arriskuan jar dezakeenez, aipatu bi ariketak kentzea edo deuseztatzea dagokio. Lehenengo ariketako bi galderek (A eta B) testuinguru bera partekatzen dute eta ariketa bakar baten zati gisa diseinatu ziren.

Kasu honetan, quorum gabe hartutako erabakiak eragin zuzena izan zuen lehenengo zatiko lehenengo ariketaren edukian eta baldintzetan (planteamendu urbanistikoari buruzko a eta b atalak), baina ez dago egiaztatuta gainerako ariketek —lehenengo zatiko bigarren galderak eta bigarren zatiko lau galdera teoriko-praktikoek— akats beraren eraginik jasan zutenik.

Horrenbestez, egintza deuseztagarri aitortzearen ondorioak mugatuak eta proportzionatuak izan behar dira, eta ez da bidezkoa hutsune puntual baten ondorioz proba osoa baliogabetzea, baldin eta gainerako zatietan hautagaien berdintasuna, objektibotasuna eta lehiaren baldintzak bermatu badira. Ildo horretan, hutseagatik eragindako galderak deuseztatu (lehenengo ariketaren A eta B galderak) eta gainontzeko galderak mantendu eta galderen ponderazioa (gehieneko puntuazioa) mantentzea dagokio.

Hori guztia kontutan izanik, eta Epaimahaiaren proposamenarekin bat etorrita, honako hau

ERABAKI DUT

Lehena.- Ingurumen teknikari lanpostua betetzeko deialdiaren baitan (Esp.zk.a.: 2024LAAU0021) 2025eko urriaren 14an deituta zegoen atal praktikoari zegokion azterketaren bueltan suertatutako gorabeheren aurrean epaimahaiak hartutako erabakia deuseztagarria dela aitortzea quorum faltagatik.

Bigarrena.- Erabakia deuseztagarri aitortzearekin batera, azterketa praktikoko lehenengo zatiko lehenengo ariketako A eta B galderak deuseztatzea eta gainontzeko galderen ponderazioa (gehieneko puntuazioa) mantentzea.

Hirugarrena.- Erabakiaren berri ematea udal webgunean, deialdiari dagokion atalean.

Erabakiaren aurkako errekursoak:

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

Interesdunak honen aurka administrazioarekiko auzi-errekursoa aurkez dezake zuzen-zuzenean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25. eta 46. artikuluetan agintzen denaren ildotik:

- Epea: Bi hilabete, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.*
- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da."*

Eta behar diren ondorioetarako, jakinarazpen hau eman eta izenpetzen dut. Bergaran, sinadura datan.

**Idazkaria
Xabin Juaristi Arrieta**

